



EUSKAL HEZKUNTZA SISTEMA, ETORKIZUNA ELKARREKIN LANTZEN

Gazteen ahotsa eta azpimarra

Lan-saioan bildutako edukiak

2022ko ekainak 18, Miramar Jauregia Donostia



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro

AURKIBIDEA

1. SARRERA ETA KOKAPENA.....	2
2. EGITARAUUA	4
3. ONDORIO NAGUSIAK.....	5
3.1 Gure herriaren iraunkortasuna eta kulturartekotasuna: curriculum berri baterako ildoak.....	5
3.1.1 Euskara eta euskal kultura.....	5
3.1.2 Ikuspegi kritikoa.....	7
3.1.3 Inklusioa, ekitatea eta kulturartekotasuna	9
3.1.4 Komunitateen, herritarren eta tokiko erakundeen eragite gaitasuna.....	11
3.2 Gobernantza-eredua: demokratizazioa eta parte hartzea	13
3.3 Etorkizunera begira, zer eta nola? Eusko Ikaskuntza eta gazteak	14
4. ERANSKINAK: Lan-taldeetako aktak	15

I. SARRERA ETA KOKAPENA

Etorkizuneko Euskal Hezkuntza-Sistemaren inguruko herri-hausnarketa abian du Eusko Ikaskuntzak. Eta asmo honekin Euskal Herriko Hezkuntza-Sistemaren Liburu Zuria osatzea bilatzen du.

Euskal Herriko jendartearen erronka nagusiak hausnarketa ardatz hartuta, lurralde desberdinetan partekatzen diren hezkuntza lehentasunak modu partekatuan identifikatuko dira. Ondoren, etorkizuneko eszenatokiak definituko dira horiei erantzuteko beharko lituzketen proposamenen inguruko adostasunak landuz.

Eta honi bide emateko, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Iparraldean foro parte hartzaileak antolatzea da helburua, 2021eko irailean burututako *Ehun Zubigile* foroari jarraipena emanez.

Testuinguru honetan, ospatu da *Euskal Hezkuntza Sistema*, etorkizuna lantzen: gazteen ahotsa eta azpimarra foroa.

Euskal Herriko lurralde guztietako eremu eta ikuskera ezberdinetako gazte erakundeak, norbanakoak eta eragileak deituak izan dira Euskal Hezkuntza Sistemaz hausnartzeko eta euren arteko konfiantza testuingurua eraikitzeko. Guztira, 17 lagunek hartu dute parte.

Foroaren helburu nagusia, hortaz, gazteek hezkuntzaz hitz egiteko gune egonkorra irekitzea izan da. Eta horretarako, beharko den marko partekatu baterako oinarriak finkatzea bilatu dugu, zer norabide eman behar diogu Euskal Hezkuntza Sistemari? galderari erantzunez.

Erantzunaren bila ibilbidea egiteko, hausnarketa gidatzeko, **eztabaida jarraian agertzen diren bi ardatz nagusien inguruan kokatu da:**

Gure herriaren iraunkortasuna eta kulturartekotasuna: curriculum berri baterako ildoak.

Jendarteak, aldaketa handiei ez ezik, etengabeko aldaketen abiadura bizkorrari ere egin behar die aurre. Ziurgabetasun egoeran bizi gara. Eta aldaketa horietara egokitzeko hezkuntza-sistemaren gaitasuna ezbaian dago. Errealitate honek eta erronka globalek eskatzen dituzten galderak eta erantzunak topatzeko zailtasunak ditugu.

Korrante globalizatzaileen norabideak irakurtzeko, digitalizazioa eta inteligentzia artifizialaren eragina neurtzeko, aldaketen azkartasuna ulertzeko eta gure herria dinamika horietan ongi kokatzeko, egungo errealitatea hobetuko duten tresna eraldatzaileak sortzea beharrezkoa da.

Hezkuntza gizarte eraiketa da, gizarte antolatze moduaren ideia-sistemaren parte. Hezkuntza sistema gizarte bera eta guztion bizi-baldintzak hobetzeko palanka izan dadin, egungo ideia-balio sistema itaundu beharko genuke etorkizuneko hezkuntza sistemak nondik joan beharko luken adosteko.

Tresna eraldatzaile horiek tokitik eta tokiko erantzunak bilatuz sortuko dira, sortzekotan. Horretarako, hezkuntza –formala eta ez-formala–, erdigunera ekarri beharko genuke eta, aldi berean, ezagutza komunitarioa eta pentsamendu kritikoa garatu.

Testuinguru honetan, beste kulturekin solasean, gure hizkuntza, gure kultura eta nortasuna modu iraunkorrean bizitzeko moduaz pentsatu beharra dago, gure baitako askotariko aniztasuna kudeatzeko behar ditugun tresnak lantzeko beharra dago, beti ere, guztion bizitza duina bermatuko duen jendarte osatzeko asmoz.

Gure hezkuntza sistemak garatu behar dituen baloreak eta helburu kolektiboetaz hausnartu nahi dugu ardatz honetan. Galdera iradokitzaileak:

- Nola eman bide inklusioari, ekitateari eta kulturartekotasunari?
- Nola bide eman euskarari eta euskal kulturari?
- Nola bermatu komunitateen, herritarren eta tokiko erakundeen eragite gaitasuna?
- Nola landu jendarte gisa ikuspegi kritikoa?

Gobernantza eredua: demokratizazioa eta parte hartzea.

Arestian aipatutakoak lantzeko nolakotasunari arreta eskaini beharko litzaioke. Eta beharrezkoak diren aldaketen “nolakotasunari” erantzun egokia eta bidezkoa eman ahal izateko gobernantza eredu komunitarioa bultzatzea komeni da. Kultura demokratikoan sakontzeko premia arlo guztietan sumatzen den arren, hezkuntzak berebiziko ardura du herritartasunaren eraikuntzan: balioen eta praktika demokratikoen irakaspenean eta gauzatzean, bere baitan, eta gizarte zabalean.

- Aldaketen “nolakotasunari” erantzun egokia eta bidezkoa emateko, nola bultzatu gobernantza eredu komunitario bat?
- Nola sakondu kultura demokratikoan? Nola sustatu parte-hartzeko kultura?
- Ezagutza komunitarioa eta pentsamendu kritikoa garatzeko, nola sustatu parte-hartzeko kultura? Nola sakondu kultura demokratikoan?



2. EGITARAUUA

Jarraian, *Gazteen ahotsa eta azpimarra* foroaren egitaraua:

10:00 Izen-ematea

10:30 Aurkezpena.

Beatriz Akizu Aizpiriren sarrera eta kokapena

10:40 Elkar ezagutzarako dinamika

11:00 Dinamika parte hartzailea I

Gure herriaren iraunkortasuna eta kulturartekotasuna: curriculum berri baterako ildoak

Xabat Illarregi bertsolariak gogoetarako ideien aurkezpena

Banakako eta taldekako gogoeta

12:15 Atsedenaldia

12:30 Dinamika parte hartzailea II

Gobernantza-eredua: demokratizazioa eta parte hartzea

Xabat Illarregi bertsolariak gogoetarako ideien aurkezpena

Taldekako gogoeta eta ondorioak partekatzea

13:30 Etorkizunera begira, zer eta nola?

Eusko Ikaskuntza eta gazteen arteko harremana eta elkarlanari buruzko hausnarketa

13:45 Baloraziorako dinamika

14:00 Itxiera

Beatriz Akizuren eskertzea eta Xabat Illarregiren agurra



3. ONDORIO NAGUSIAK

Gazteen ahotsa eta azpimarra foroan, dinamika parte hartzaile bakoitzaren baitan, jasotako banakako zein taldekako ekarpenetatik hurrengo ondorioak atera dira:

3.1 Gure herriaren iraunkortasuna eta kulturartekotasuna: curriculum berri baterako ildoak

Etorkizuneko Euskal Herriko Hezkuntza Sistemak garatu behar dituen baloreen eta helburu kolektiboen inguruko hausnarketa egin da eta hurrengoak izan dira landutako lau aspektuak eta ateratako ondorioak.

3.1.1 Euskara eta euskal kultura

Euskal Herriko Hezkuntza Sistema baterako bidea egin beharra: euskara eta euskal kultura politika komun bat abiapuntu

- Euskal Herriko ikuskera bateratu bat izatea (nazio ikuspegia eta lurralde bakoitzean egin beharreko lanak berezia lankidetzan)
- Euskarari eta euskal kulturari balio berdina ematea (euskalduntzea).
- Borondate politiko sendoa izatea.
- EAE, Nafarroa eta Iparraldearen artean harreman horizontal batetik lan egitea, "EAE zentrismoa" albo batera utzita.
- Bide hau Nafarroan eta Iparraldean egiten laguntzeko: ofizialtasunean ere kolaborazioan lan egitea.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren ardura: gaitasun haundiagoa duelako, hobekien kokatuta dagoelako.

Euskara eta euskal kulturaren transmisioan arreta jarri beharra: zer eta nola

- Ikastetxeetan euskarari eta euskal kulturari ez zaie nahikoa arreta ematen, euskal ohitura eta tradizioei leku zabalagoa eman.
- "Folklorizazioan" erortzeko arriskua, arreta jarri.
- Bizi garen gizarte globalizatuaren aurrean, hainbat dinamika eta joera gailentzen ari dira, euskara eta euskal kulturaren kalterako. Arreta jarri eta aztertu.
- Erabiltzen diren erreferentziak zeintzuk diren hausnartu: Euskal erreferenteak behar dira, topikoetatik aldentuak eta gaurkotuak (haur-nerabeen erreferenteak).
- Euskarazko material didaktiko eta baliabideak eguneratu eta sortu behar dira.
- Euskal Herriaren historiaren irakurketa osoa eta anitza behar da.

Euskara eta kezkak. Hezkuntza-hizkuntza proiektu komunitarioa helburu.

- Euskara gero eta jende gehiagok jakin arren, erabilera datuak gero eta okerragoak dira.
- Hizkuntza kalitatea asko ari da murrizten, aipatzen diren arrazoi batzuk: irakaskuntza gradua euskaraz egiteagatik C1 ziurtagiria emateak edo irakasleen euskara maila; ikasketak euskaraz edo erdaraz egiteak dakartzan desberdintasunak; euskaraz egitea sari edo zigor gisa erabiltzea.
- Euskaraz ikasteak hainbat zonaldeetan duen prezio soziala edo estigmatizazioa.
- Garrantzia eman diote ere haurrak euskararekiko duen jarrera, pertzepzioa, ardura ezagutzeari; haurrek eta familiek nola bizi duten ezagutzeari.
- Euskarari eta euskal kulturari balioa ematea. Horretarako, hezkuntza-komunitateak, euskalgintzarekin batera, euskararen eta euskalduntzearen inguruan lanak propio bat egitea.

Euskarak Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Iparraldean bizi duen errealitate desberdinak hezkuntza sisteman isla du eta gazteak horren kontziente dira, argi ikusiz lurralde bakoitzean egin beharreko lanak desberdina dela.

Hala ere, eta euskaraz ikasteko eskubidea premisa gisa harturik, gazteek Euskal Herria bere osotasunean bilduko duen hezkuntza sistema baterako bidea egin beharra lehenesten dute, hezkuntza-politika komun bat abiapuntu.

Horretarako beharrezko ikusi dute: Euskal Herriarekiko ikuskera bateratu bat izatea; euskarari eta euskal kulturari balio berdina ematea (euskalduntzea); borondate politiko sendoa izatea; EAE, Nafarroa eta Iparraldearen artean harreman horizontal batetik lan egitea, “EAE zentrismoa” albo batera utzita.

Bide hau Nafarroan eta Iparraldean egiten laguntzeko, aipatutakoaz gain, garrantzia eman diote euskararen ofizialtasunean ere herri ikuspegi horretatik kolaborazioan lan egitea eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren ardura azpimarratzen da gaitasun handiagoa duelako, hobekien kokatuta dagoelako.

Hezkuntza komunitateari dagokionez, gazteek euskararen eta euskal kulturaren trataera nola egiten den eztabaidatu dute. Batzuen iritziz ikastetxeetan euskarari eta euskal kulturari ez zaie nahikoa arreta ematen, eta hortaz, euskal ohitura eta tradizioei leku zabalagoa eman beharko litzaiekeela uste dute. Beste batzuek berriz, “folklorizazioan” erortzeko arriskua ikusten dute; gaur egun hainbat ikastetxeetan euskal kultura soilik festa giroarekin (inauteri, Santa Ageda...) lotzen dela argudiatuz. Hemen ere, beste batzuek tentuz jarduteko beharra aipatzen dute, bizi garen gizarte globalizatuaren aurrean, hainbat dinamika eta joera gailentzen ari direla aipatuz, euskara eta euskal kulturaren kalterako. Azpimarratutako arriskuak eta joerak kontuan hartuta, denak bat datoz euskara eta euskal kulturaren transmisioa modu orekatuan eta behar duen balioa eta tokia eskainiz egin behar dela.

Hausnarketa gai izan da ere euskara eta euskal kultura nola irakasten eta transmititzen diren. Besteak beste, hurrengo gaiak aipatu dira: erabiltzen diren erreferentziak zeintzuk diren hausnartu beharko litzateke; euskal erreferenteak behar dira, topikoetatik aldenduaz eta gaurkotuak (haur-nerabeen erreferenteak); euskarazko material didaktiko eta baliabideak eguneratu eta sortu behar dira; Euskal Herriaren historiaren irakurketa osoa eta anitza egin behar da.

Tartean, pisu nabarmena hartu du euskarak. Hainbat izan dira honen inguruan partekatutako kezkak, hala nola: euskara gero eta jende gehiagok jakin arren, erabilera datuak gero eta okerragoak dira; hizkuntza kalitatea asko ari da murrizten, eta honetan eragina izaten ari da, besteak beste, irakaskuntza gradua euskaraz egiteagatik CI ziurtagiria emateak edo irakasleen euskara maila; euskara atzerriko hizkuntza bezala tratatzeak (selektibitatean, adibidez) balioa kentzen dio; ikasketak euskaraz edo erdaraz egiteak dakartzan desberdintasunak; euskaraz egitea sari edo zigor gisa erabiltzea; euskaraz ikasteak hainbat zonaldetan duen prezio soziala edo estigmatizazioa.

Garrantzia eman diote ere haurrak euskararekiko duen jarrera, pertzepzioa, ardura ezagutzeari; haurrek eta familiekin nola bizi duten ezagutzeari.

Testuinguru honetan, garrantzitsua deritzote euskarari eta euskal kulturari balio ematea. Horretarako, hezkuntza-komunitateak, euskaletzagintzarekin batera, euskararen eta euskalduntzearen inguruan lanketa propio bat egin beharko litzatekeela uste dute, orokorrean euskararekiko eta euskalduntzearekiko jarrera aldatzea helburu.



3.1.2 Ikuspegi kritikoa

Konpetentziei buruzko formakuntzaren norabide eraldaketa beharra, curriculum berritzearen premia

- Ikuspegi kritikoa ez da zeharka lantzen.
- Egungo curriculum zaharkitua geratu da: Egunerokoan hobesten diren konpetentziak, ebaluazio-sistema nagusiak, lan merkatuari eta produkzioari begira diseinuta izatea, adin goiztiarretan espezializazioa bilatzen da, begirada "helduzentrista" du.
- Zeharka landu beharreko gaiak kritikotasunarekin batera: ekitatea, aniztasuna, enpatia, gatazken kudeaketa, botere-harremanak, emozioen kudeaketa...
- Tokia egin beharra duten azpimarratzen diren gaiak: Euskara eta hizkuntza gutxituak, Euskal Herria eta estaturik gabeko nazioak, erlijioak eta laikotasuna.

Metodologia berritzaileak erabiltzeko beharra / Irakasleen formakuntza

- Esperientzia interesgarri eta berritzaileei zilegitasuna eta ikusgarritasuna eman.
- Begirada kritikoa txikitatik lantzea: entzuten ikastea eta irakastea, eztabaidatzen ikastea eta irakastea, hausnarketa sustatzea.
- Irakasleen kritikotasuna lantzea (kritikotasunean formatu).

Ikuspegi kritikoaren garapenean komunitate osoaren inplikazioa sustatu beharra

- Erakundeetatik hasi, eta espazio ez-formaletaraino, akonpainamendua eta lanketa egitea.



Gazteen iritziz, ikuspegi kritikoa ez da zeharka lantzen, ikasgai zehatzera mugatzen da (etika edo hiritartasunaren ikasgaiak esaterako) eta hortaz, ikasleek ez dute ikuspegi kritikoa barneratzen. Are gehiago, oinarritzko hainbat konpetentzia ere ez dira egoki lantzen (ulermena, irakurketa, matematikak...) eta honek hainbat arazo dakartza ikasleen etorkizunean, baita ikuspegi kritiko baterako garapenean ere.

Gainera, gaur egungo curriculum zaharkitua geratu dela uste dute, hurrengo arrazoiak tarteko: buruz ikastea da hobesten den konpetentzia; ebaluazio-sistema nagusia azterketak dira; lan-merkatuari eta produkzioari begira diseinatu dago; adin goiztiarretan espezializazioa bilatzen da; egungo hezkuntza sistemaren markoan modu egokian jarduteko gaitasuna duten ikasleak hobesten dira; orokorrean begirada helduzentrista nagusi da;...

Honenbestez, gazteek ezinbesteko ikusten dute hezkuntza sisteman norabide aldaketa baten beharra eta ikuspegi kritikoa eta beste zenbait aspektu, hala nola: ekitate, aniztasuna, enpatia, arazoen erresoluzioa, botere-harremanak, emozioen kudeaketa... zeharkakotasunez lantzea, beti ere, ikasle bakoitzaren behar eta denboretara egokituta.

Eraldaketa honen baitan, hainbat gaztek gaineratu dute ere, gaur egungo ikuspegi androzentrista desmuntatu beharra dagoela.

Hau guztia lortzeko begirada kritikoa txikitatik lantzea, entzuten ikastea, eztabaidatzea, hausnarketa sustatzea... beharrezkotzat jo dira. Honela, metodologia berritzaileak erabiltzea proposatzen da, gaur egun existitzen diren esperientzia interesgarriei zilegitasuna eta ikusgarritasuna emanez.

Halaber, hainbat alorren inguruan ikuspegi kritikoa garatu eta ondorengo gaiei toki egin beharra aipatu da: euskara eta hizkuntza gutxiak; Euskal Herria eta estaturik gabeko nazioak; erlijioak eta laikotasuna; ...

Amaitzeko, eta heziketa ikastetxeen eskumena soilik ez den heinean, ikuspegi kritikoaren garapenean komunitate osoaren inplikazioa sustatu beharra gehitu da, erakundeetatik hasi, eta espazio ez-formaletaraino, akonpainamendu eta lanketa bat egitea interesgarria izango litzatekeela iritzita.



3.1.3 Inklusioa, ekitatea eta kulturartekotasuna

Ikaslea erdigunean jarri beharra

- Askotariko beharrak identifikatzeko eta behar hauei erantzuteko.
- Haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatuz eta ahalduntzea bermatuz.

Ardura kolektiboa

- Hezkuntza komunitatea osatzen duten eragile desberdinen rolak bir-pentsatzea dakar.
- Tokiaren tokiko erantzunak lehenetsi.
- Eskola gizarte inklusiorako elkargune-bilgune tresna gisa hartu.
- Hezkuntza formala eta ez-formaleko eragileen inplikazioa.
- Udalen rolaren garrantzia.

Euskara eta euskal kultura inklusiorako bide

- Inklusio prozesuetan eskaini dezakeen balio erantsia ikusaraztea, transmititzea eta demostratzea.
- Euskara (eta euskal kultura) inklusiorako tresna gisa identifikatzeko eta garatzeko, tokian tokiko berezitasunak kontuan hartuta, kolektiboki plan orokor bat sortzeko beharra.
- Lanketa honek inklusio prozesua bizi duten haur, nerabe, gazte, zein familiak hartu beharko ditu kontuan.
- Kultura eta hizkuntza desberdinei toki ematea, baina kontuan hartuta euskara hizkuntza gutxitua dela.
- Beste kultura batzuk ezagutzeari eta elkar-banatzeari denbora eta espazio eskaintzea onuragarri ikusten da: aurriritziekin amaitzeko; kultura eta kulturak balioan jartzeko; kulturen arteko hierarkiak hausteko.

Gazteek argi dute inklusioa eta aniztasunaren kudeaketa gizarte mailako erronkak direla, eta gizarte gisa erantzun bateratu bat emateko gai ez garen bitartean, hezkuntza-komunitateak ere ezingo duela, berak bakarrik, behar bezalako trataera egin.

Ezintasun honek dakar, noski, taldearen iritzitan, gaur egun hezkuntza sistema bere horretan segregatzailea izatea: ikastetxeen arteko desorekak; hainbat zonaldean, eta lurralde mailan ere ematen ari diren arrakalak;... Ezintasun honek bat egiten du gainera, hezkuntza mailako beste hainbat zailtasunekin: ikasle ratio altuak; irakasle eta profesional falta; baliabide ekonomiko urriak; ...

Eta inklusioa pertsonen askotariko beharrak identifikatzea eta behar hauei erantzutea den heinean, gazteek ikaslea erdigunean jarri beharra ezinbestekotzat jotzen dute, haur, nerabe eta gazteen parte hartzea sustatuz eta ahalduntzea bermatuz.

Honek guztiak hezkuntza komunitatea osatzen duten eragile desberdinen rolak birpentsatzea dakarrela uste dute: hasi irakasleen roletik, segi hezkuntza sisteman beharrezkoak diren bestelako langile eta profesionaletatik, eta gurasoen rolaekin amaitzeraino. Ardura kolektiboa baita, azken finean.

Eta ez da ahaztu behar eskolak gizarte inklusiorako tresnak ere badirela. Horregatik, eta kasu honetan ere, hezkuntza-komunitate formalarekin batera, hezkuntza ez-formaleko eragileak eta, orohar, komunitate osoa inplikatu behar dela ikusten dute gazteek.

Era berean, eta tokian tokiko erantzunak lehenetsiz, udalek hezkuntza arloko eskumenak izatea beharrezko ikusten dute, alde batetik, esku hartzeko udalaren ezagutza handiagoa delako; eta bestetik, errealitatera hobeto egokitutako politikak sustatu ahalko dituelako.

Bestalde, gazteek hizkuntza, zehazki, euskara, inklusiorako bide dela argi dute, orain artean baina nola egin ez dela asmatu iruditzen zaie, eta hortaz, garrantzitsua dela euskarak inklusio prozesuetan eskaini dezakeen balio erantsia ikusarazten, transmititzen eta demostratzen. Horrela, euskara (eta euskal kultura) inklusiorako tresna gisa identifikatzeko eta garatzeko, tokian tokiko berezitasunak kontuan hartuta, kolektiboki plan orokor bat sortzeko beharra ikusi da. Lanketa honek noski, inklusio prozesua bizi duten haur, nerabe, gazte, zein familiak hartu beharko ditu kontuan.

Honi estuki lotuta dator, kulturartekotasunaren gaia. Kasu honetan, gazteek ez dut iritzi bakar bat: batzuek hezkuntza sistemak kultura eta hizkuntza desberdinei toki ematea ezinbestekotzat ikusten moduan; beste batzuentzat tentuz tratatu beharreko gaitzat dute, batik bat hizkuntza aniztasunari dagokionean, euskara hizkuntza gutxitua den heinean, atzean gelditzeko arriskua ikusten baitute.

Hala ere, euskal kulturarekin batera beste kultura batzuk ezagutzeari eta elkarbanatzeari denbora eta espazioa eskaintzea onuragarri dela ikusten dute: aurreiritziekin amaitzeko; kultura eta kulturak balioan jartzeko; kulturen arteko hierarkiak hausteko;...



3.1.4 Komunitateen, herritarren eta tokiko erakundeen eragite gaitasuna

Hezkuntza komunitatea eta herri-komunitatea elkarlanean: tokiko hezkuntza-hizkuntza proiektua

- Herri bakoitzean hezkuntza-mahai bat: herri mailako beharrak jasotzeko, erronka komunak identifikatzeko, eragile desberdinen arteko elkar-ezagutza eta konfiantza sustatzeko.
- Komunitatea saretzea eta sendotzea helburua.
- Tokiko eragileekin (auzo elkarteak, aisialdi elkarteak, ingurumen eragileak, kultura eragileak, memoria historikoa lantzen duten taldeak, kulturartekotasun arloko taldeak, udala eta udal zerbitzuak...) curriculumeko lan-ildoekin lotutako gai espezifikoak lantzeko aukera.
- Komunitatearekin batera egin beharreko lanketa: ikas materiala sortzea, txangoak egitea, haur, nerabe eta gazteek herrian bizitzeko gaitasunak garatzeko ekintzak proposatzea.
- Egoera linguistikoaren arabera sareak: hizkuntza eta kultura ezberdinen arteko esparru komunak sortzea (euskara zentroan)

Erronka nagusia: Komunitate kohesionatua eta parte hartzailea

- Estrategia orokor bat garatzea eskatzen du.
- Komunitatea ahalduntzea eta eragite-gaitasuna sendotzea helburu.
- Kohesioarekin lotuta: Titulartasun publiko eta kontzertatuarekin amaitu beharra, epe laburrera baino epe luzerako helburu gisa planteatzen da lurraldeen arteko berezitasunak kontuan hartuta (EAEn pausu hau emateko baldintzak egon daitezke. Iparraldeko eta Nafarroako errealitatea beste bat da, sistema publikoan euskaraz ikasteko aukerarik edo bermerik ez dagoen bitartean, borroka-esparrua beste bat izan behar du)

Euskal Hezkuntza Sistemaren balioak

- Euskalduna
- Berdinzalea
- Feminista
- Antirrazista
- Parte hartzailea

Gazteen iritziz gaur egungo hezkuntza sistemak goitik beherako ikuspegia du, tokiko komunitate eta erakundeen eragite gaitasuna oso urria delarik. Egoera hau irauli beharra dagoela uste dute, tokian tokiko hezkuntza komunitateak herri-komunitatearekin elkarlanean jarritz. Elkarlan horrek aldebiko lana eta onura beharko luke izan, komunitatea saretzea eta sendotzea bilatuz.

Eragile zerrenda luzea dela ikusi da, hala nola: auzo elkarteak, aisialdi elkarteak, ingurumen eragileak, kultura eragileak, memoria historikoa lantzen duten taldeak, kulturartekotasun arloko taldeak, udala eta udal zerbitzuak... Eta hauetako bakoitzarekin gai desberdin bat lantzea egoki ikusi da, curriculumeko lan-ildoekin bat eginez.

Banakako harreman batetik harago, herri bakoitzean hezkuntza-mahai bat sortzearen proposamena egin dute gazteek, herri mailako beharrak jaso eta erronka komunak identifikatzea helburu, honek aurrez elkar ezagutzeko eta konfiantza giro bat sortzeko topaketak egitea eskatzen duelarik.

Komunitatearekin batera egin beharreko lanketan ikas materiala sortzea, txangoak egitea, haur, nerabe eta gazteek herrian bizitzeko gaitasunak garatzeko ekintzak proposatzea... aipatu dira, beti ere, ikaslearen beharrak kontuan hartuz eta euren parte hartzea sustatuz.

Haatik, eta gazteen iritziz, komunitate kohesionatua eta parte hartzailea da esparru honetan azaleratzen den erronka nagusia. Honek estrategia orokor bat garatzea eskatzen du, komunitatea ahaldundu eta eragite-gaitasuna sendotzeko.


Kohesioari aipamen eginez, gazteek hezkuntza sistema publiko eta kontzertatuarekin amaitu beharra ikusten dute, epe laburrera baino epe luzerako helburu gisa planteatuz. Izan ere, herri berdinean titulartasun desberdineko ikastetxeak egoteak, haur eta nerabeen artean ere desberdintasunak eta desorekak sortzen baititu.

EAEn pausu hau emateko baldintzak egon daitezkeela uste dute gazteek. Era berean, kontziente dira Iparraldeko eta Nafarroako errealitatea beste bat dela eta sistema publikoan euskaraz ikasteko aukerarik edo bermerik ez dagoen bitartean, borroka-esparrua beste bat izan behar dela.

Honela, gazteek argi dute Euskal Herriko Hezkuntza Sistema hurrengo balioetan oinarritu beharko litzatekeela: euskalduna, berdinzalea, feminista, antiarrazista, parte hartzailea...



Halaber, eta beti ere, gazteen iritziz, etorkizuneko Euskal Herriko Hezkuntza Sistemaren garapenean lau aspektu hauek oso garrantzitsutzat dituzte, lehentasun handienekoa euskara eta euskal kultura izanik, beheko irudian ikus daitekeen moduan.



3.2 Gobernantza-eredua: demokratizazioa eta parte hartzea

Etorkizuneko Euskal Herriko Hezkuntza Sistemaren gobernantza-ereduari eta antolaketari dagokionez, gazteek **ezinbesteko elementutzat dute parte hartzea**.

Gaur egungo erakunde ereduak huts egin duela eta eredu berri bat beharrezkoa dela uste dute, **non gizarteak parte hartu eta erabakiak hartu ahal izango duen**. Eta eraldaketa hau **Hezkuntza Sistemari** ere eman beharrezkoa dela iritzi dute gazteek.

Euskal Herriko hezkuntza-eredua modu kolektiboan eraiki behar dela diote. **Eraikuntza kolektibo honetan protagonista izan behar dira hezkuntza eragileak**, hala nola: zuzendaritzako kideak, irakasleak, ikastetxeetako langileak, ikasleak, gurasoak... Era berean, tokian tokiko erakunde publikoek eta gizarte eragileek hartu beharko lukete parte. Ildo honetan, hainbat gazteren iritziz **herri bakoitzean hezkuntza-mahai bat sortu beharra** azpimarratu dute.

Erantzunkidetasunarekin batera, tokian tokiko ikuspegia da gazteek aipatutako beste elementuetako bat. Tartean, herri hezitzaileen filosofia ere aipatu dute. Eta herritarren parte hartzea sustatu eta bermatzeko eremu proposena herri mailakoa dela iritzita, tokian tokiko errealitatera egokitutako ereduak izan behar duela argi dute.

Honela, etorkizuneko Euskal Herriko Hezkuntza Sistemaren garapenak Euskal Herriko gizarte osoaren ardura eta erantzunkidetasuna behar ditu, **nazio mailako marko batetik abiatuta eta tokian tokiko errealitatean lur hartuko duena**.

Halaber, eta espiritu demokratikoa txikienean eratzten dela kontuan hartuta, **gobernantza-eredu berri bat eraikitzeko beharrezkoak diren gizarte-aldaketek ikasgelan hasi behar dute**. Izan ere, ikasgeletan, haur, nerabe eta gazteen egunerokoan hartzen diren erabaki txikienean ere oihartzuna baitute eta erabaki hauen partaide izateak gizartean nola parte hartu erakusten die, bizitzarako tresnak eskaintzearekin batera.

Aurrez adierazi bezala, **honek eraldaketa bat eskatzen du** eta gazteek beharrezko ikusten dute, adibidez: ikastetxeetako zuzendaritza-ereduak errebisatzea; irakasleen lidergoa indartzea; ikastetxeetako erabaki-guneetan ikasleak presente egotea eta horretarako nerabe eta gazteak ahaldundutzea; ikastetxe mailako hainbat prozedura eta erabakietan ikasleen iritzia kontuan hartzea; ikasgela barruan, ikasleen arteko elkar entzutea eta enpatia sustatzea; ...

Hurrengo hitzek laburbiltzen dute, foroan parte hartutako gazteek etorkizuneko Euskal Herriko Hezkuntza Sistemaren garapenerako zer nolako gobernantza-eredua lehenesten duten:

aprender participando
gazte dinamizatzaile
ikasleen partehartzea
subjektu aktiboaren beharra
ardura sentitu
gazteen ahotsa
poder popular
ausardia
tokikotasuna
jarrera kritikoa
behetik gorako prozesuak
tokiko egoerara egokitua
udalen erabakimena
erakartzeko gaitasuna
elkarguneak
interesa

3.3 Etorkizunera begira, zer eta nola? Eusko Ikaskuntza eta gazteak

Gazteen *ahotsa eta azpimarra* foroa **hausnarketa konpartituak emateko gune egoki eta aberasgarritzat jotzen da**, eta espazio hauek gehiagotan irekitzea positiboa litzakeela diote gazteek.

Hala ere, gazteek **foro edo espazio hauen eraginkortasuna handitze aldera** hainbat aspektu gaineratu dituzte, hala nola: aurrez Euskal Herriko gazteen artean elkar ezagutzeko espazioak sortu behar direla; antolatu gabeko gazteen, edo parte hartzeko kultura hain sustraitua ez duten gazteentzat gertuagoko espazioak bilatu behar direla; gazte mugimenduaren ordezkaritza zabalagoak parte hartzeko bitartekoak jarri behar direla; gazte eragile bakoitzaren lanketak eta erritmoak errespetatu behar direla, eta hortaz, dinamika iraunkor bat baino dinamika puntualagoa behar duela izan; epe laburreko, ertaineko zein luzeko helburu partekatuak finkatu behar direla, **amankomuneko erronkak identifikatzea eta estrategia bateratuak adostea helburu**; ...

Gazteek ere, **Eusko Ikaskuntzari eskatzen diote euren arteko espazioak sortzeaz gain, benetako eragiteko gaitasuna duten organoekin harreman zuzena bideratzea**, hau da, bitartekaritza lan bat egitea, euren behar eta nahiak eragin eremuetan entzunak eta kontuan hartuak izan daitezen.

Gazteen partetik azken ekarpena hurrengoa izan da: horrelako foro eta dinamikak beste erakunde edo eragile batek sustatu baino, are interesgarriagoa litzatekeela, **gazteek zuzenean sustatzea eta horretarako, eta euren ahalduntzerako, bitartekoak eskaintzea** ezinbestekoa dela. “Entzunak izatera gonbidatzen gaituzte, gu ere bagara nor besteak entzuteko”.



4. ERANSKINAK: Lan-taldeetako aktak

AKTA

TALDEA	ALTUBE
Dinamizatzailea	Idurre Zugazagasti
Zkia.	Izen Abizenak
1	Ainhoa Gorostiaga
2	Aitor Iriondo
3	Maialen Oiartzun
4	Markel Zubiaga

TALDEA	ARGA
Dinamizatzailea	Tasio Arrizabalaga
Zkia.	Izen Abizenak
1	Mikel Balerdi
2	Naia Kortaberria
3	Pablo Lanaspa
4	Mikel Olabarri
5	Maialen Olabe

TALDEA	ATURRI
Dinamizatzailea	Nerea Blanco
Zkia.	Izen Abizenak
1	Jon Fernandez
2	Eider Gurrutxaga
3	Ramon Varela
4	Olatz Zinkunegi

TALDEA	UROLA
Dinamizatzailea	Maria Sarasola
Zkia.	Izen Abizenak
1	Irati Agorria
2	Oier Errementeria
3	Izar Hernando
4	Xabat Illarregi

DINAMIKA PARTE HARTZAILEA I - AKTA**GURE HERRIAREN IRAUNKORTASUNA ETA KULTURARTEKOTASUNA: CURRICULUM BERRI BATERAKO ILDOAK**

Banakako hausnarketa egin ondoren, taldean partekatutako ideiak eta gainerako lantaldeek gehitutako ekarpenak.

INKLUSIOA, EKITATEA ETA KULTURARTEKOTASUNA	EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA
• Hezkuntza gizartearen isla da. Herri bezala ez daukagu inklusiorako eta kulturartekotasunerako planik. Eta, beraz, hezkuntzan ere plan integral horren falta nabari da. • Hezkuntza inklusiorako tresna izan daiteke (jende eta familia desberdinak elkartzen dituen espazioa delako). Horrekin asmatuko balitz, herri mailako joera batzuk eraldatzeko tranpolin egokia litzake • Hezkuntza sistema segregatzaile bat dugu, ez duena gizarte oso baten hezkuntza helburutzat hartzen. • Tokian tokiko egoeratik aparte plan bat kolektiboki sortzeko beharra • Euskal Herriaren baitan lurraldeen arteko banaketak arrakalak eta desorekak sortzen ditu • Hezkuntza formaletik haragoko hausnarketak abiatzea eta hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa lortzeko interpelatzea • Euskara inklusiorako tresna gisa identifikatu/planifikatu beharra • Hizkuntza inklusiorako tresna ezin hobea da, baina ez dugu asmatzen euskarari balio hori ematen • Euskararekiko lanketa aldaketa beharra: diskurtso ez folklorikoa: behar bat bezala kokatzea, ez soilik eskubide gisa. Gainera euskararen inguruko lanketa zentroaren araberakoa da, eta askotan lanketek ez dute funtzionatzen. • Hizkuntza ikuspegitik hezkuntza sistema ez da inklusiboa. Euskaldun bezala ikusten dugu baina ikusi daiteke baita ere beste hainbat ikuspegitik ere • Euskal hezkuntza sistemaren balioak honakoak beharko lukete izan: antiarrazista, feminista eta euskalduna • Eskola herri kudeaketaren parte da; Udalak esku hartzeko ezagutza handiagoa du gobernu autonomikoak baino • Udal konpetentziak izatea beharrezkoa da sistema propioak garatu ahal izateko. Kontua ez da herri bakoitzak bere hezkuntza sistema izatea, baizik eta tokian tokiko errealitatea kontutan hartu ahal izateko malgutasuna edukitzea • Inklusioa kulturartekotasunetik haratago ulertu behar da • Inklusioak ez du esan nahi denok elkarrekin berdina egin behar dutela; haurren beharrei erantzuteko tresnak behar dira eta haurren inklusioa lantzeko hezkuntza formaletik haragoko beste tresna batzuk ere kontutan hartu behar dira, eskola kirola kasu. • Arazoak: Segregazioaren errealitatea, ratioak, ikasleen partaidetza eza hezkuntza sisteman, indizeak, baliabide falta ikasleek beren lana modu egokian garatzeko • Arazoei aurre egiteko modua hezkuntza publiko indartsu eta bakarra da.	• Mundu eta ohitura globalizatuen garaian, nola indartu euskal kultura hezkuntzaren bitartez edo hezkuntza dela medio? • Zeintzuk dira haur eta nerabeen erreferenteak? Zein erreferentzia erabiltzen ditugu? • Ikastetxeetan ospatzen diren festak zein kulturetakoak dira ? • Marrazki bizidunak euskaraz • Euskarazko baliabideak behar dira. Bai hezkuntzaren barne, baita ez-formaletik ere. • Eskubidea • Euskararen ofizialtasuna • EHko eremu bakoitzaren egoera kontuan hartuta ikastegi guztietan euskara erakustea, lege bidez behartuz beharrezkoa balitz. • Nola indartu Euskal Hezkuntza Nafarroa eta Iparraldean? Gaur egun EAEn medio gehiago • Euskararen ezagutza eta erabilera • Jarrera kontua da, Ahobizi eta Belarriprest egitasmoa • Irakasleen euskara maila. Gradua euskaraz egiteagatik C1 maila lortzea ez da erreala. • Euskararen kalitatea okertzen ari da • Inoizko euskarazko ezagutza altuena baina erabilera oso baxua. Nola landu hezkuntza? • Hizkuntza-maila apaltzen ari da? • Euskararen erabilera kalean, lanean eta etxean • Hizkuntza hezkuntzari lotu behar zaio • Selektibitatean euskara atzeritar hizkuntza bezala tratatzea ez da zentzuzkoa. Anbizioa • Hizkuntza hezkuntzarekin, ikastetxearekin edo lanarekin lotzeaz haratago, nola lortu beste esparru batzuetara zabaltzea? Lanarekin badago nahi eta ezin bat gainera. Praktikoa izan behar du. • Euskara ikasteko tresna izan behar du. • Euskara ikasteko moduan. Zigor/sari moduan erabiltzen da ikastetxeetan eta hau kaltegarria da. Beste modu batzuk asmatu behar dira erabilera sustatzeko. • Haurak euskararekiko duen jarrera, pertzepzioa, ardura ezagutu behar dugu. Nola bizi dute beraiek? • Euskara ikasteak Nafarroan, adibidez, badiu bestelako gehigarriak. Ordu lektibo gehiago, azterketa bat gehiago... • EAE, Nafarroa eta Iparraldean euskara eta euskal kulturaren indar parekoa izateko sistema bat bermatu beharko litzateke. • Nork du ardura? EAEn ardura da, gaitasun handiago duelako? • Koordinazioa eta politika komun bat behar dira. • Elkar ezagutu behar gara, harremanak sendotu.

DINAMIKA PARTE HARTZAILEA I - AKTA

- Dagoeneko hainbat tokitan martxan dauden praktika onak ezagutzera ematea garrantzitsua da zabaltzeko eta abiapuntu moduan balio ahal izateko. - Lanketa egiteko baliabide beharra: humanoak, ekonomikoak eta hausnarketa espazioak - Ikaslea erdigunean jarri behar da: ez soilik ikaslearen bizitza, baizik eta beren iritzia eta parte-hartzea sustatuz. - Interesgarria litzateke hizkuntza aniztasunari leku ematea: jatorri ezberdinetako haurrek haien kultura ere ezagutaraztea. - Familiek euskara nola bizi duten kontutan hartu behar da - Aniztasun linguistikoak beste espazio batzuk ditu eta euskarak ez du nahikoa abantaila. Ondorioz, arrakastak izan daiteke euskararentzako eskolan hizkuntza aniztasunerako espazioak zabaltzea. - Kulturak elkarbanatzeari denbora eskaintzea estereotipoak hautsi eta kultura horiek balioan jartzeko balio dezake; baita kulturen arteko hierarkiak apurtzeko. Espazio informaletaz baliatu gaitezke kulturartekotasuna lantzeko - Hezkuntza komunitatea osatzen duten aktore ezberdinen rolak birpentsatu behar dira: - Gurasoen rola inguruan hausnartu behar da - Irakasleen rola birpentsatu behar da - Hezkuntza sisteman beste langile profil batzuen beharra dago - Hezkuntzaren ardura kolektiboa: inguruaren rolaz hausnartu behar da.	- Borondate politikoa behar da. Hasi Udaletatik, Foru Aldundi eta lurraldeetako gobernuetara arte. - Harreman horizontalak - Nazio ikuspegi batetik egin behar da lan. Gutxituak garela ezin dugu ahaztu - Euskal Herriarekiko ikuskera bateratu bat eskatzen du. - Historiaren irakurketa nola egiten den aztertu beharko litzateke, EH bere osotasunean, ikuspegi desberdinak txertatuz. - Euskal Kultura kondairak, ohiturak... erakusten dela bermatu nortasun baten erakusle moduan - Kontuz baina, folkloreizazioarekin, turistifikazioarekin - Nortasun eta kultura bat landu behar dira - Prezio soziala. Nafarroan, batik bat, euskaraz ikasteak, duen prezioa (estigmatizazioa) - Gure tradizio eta ohituren lanketa pobrea da ikastetxeetan - Hezkuntzan beti ez da aski lantzen kultura - Euskarazko hezkuntzan ikasten duten guztiek ez dute kulturaren ezagutza eta kontzientzia. - Euskalki bakoitzak kultura bat du - Nola lantzen da transmisio hau? Zein erreferentzia erabiltzen dira? - Lanketa guzti honetarako, ezinbestekoa da ratioak jaitea. Zein baldintzatan landu daiteke hau guztia ? - Gure hizkuntza « banderatzat » har dezakete datozenek. Kulturartekotasuna - Ikasleak oinarri diren hezkuntza sistema noizko?
KOMUNITATEEN, HERRITARREN ETA TOKIKO ERAKUNDEEN ERAGITE GAITASUNA	IKUSPEGI KRITIKOA
KOMUNITATEA ETA HEZKUNTZA KOMUNITATEAREN ARTEKO ZUBIA. - Gaur egungo ereduak oso goitik beherako ikuspegia du. Tokiko komunitate eta erakundeek eragite gaitasun eskasa dute. - Komunitate horren eragileak: auzo elkarteak, ikasleak, irakasleak, gurasoak, aisialdi elkarteak, ingurumenarekin, kulturarekin, memoria historikoarekin... lotura duten herri eragileak...). Eta gai horiekin lotutako astean behineko txangoak kurrikulumean txertatu. - Komunitatearen eta hezkuntza sistemaren arteko sarea sortzearen helburua elkar elikatzea izan behar du. Hau da, alde biko lana eta onura izatea. Hezkuntzak ekarpena egiten dio komunitateari eta komunitateak hezkuntzari. "Hezkuntzan komunitatearen (tokiko eragileen) presentzia aberasgarria dela - Horretarako eskola herrian egon behar du (baita fisikoki ere), eta herriarekin. Bertan egiten diren ekintzen parte izan behar du. - Horrekin batera, herrian bizitzeko gaitasuna garatzeko ekintzak egitea proposatzen da (erosketak egin etab.). Baita herrian dauden errealitate ezberdinekin ere elkarbizitzaren ikasi. "Zer da hezkuntza komunitaterik gabe?" Nola sortu komunitatearen eta hezkuntza sistemaren arteko sarea? - Herrietan, auzoetan elkarguneak sortu behar dira (eragile, elkarte, aisialdi, hizkuntza komunitate...).	Arazoak - Curriculum zahartuta geratu da. - Produzitzea soilik du helburu. - Hezkuntza robotizatuta dago. - Hezkuntza gaur egun planteatuta dago merkatu laboralean enkajea duten pertsonak soilik heztera. - Memorizatzea da hobesten den konpetentzia bakarra. - Ebaluazio ereduak: azterketak. - Begirada "helduzentrista". - Aniztasun kulturala, linguistikoa... alboratu. - Ratioak gelatan. Ez dago denbora nahikorik eztabaida eta hausnarketa sustatzeko. - Ikuspegi kritikoa ez da zeharlerrokotasunez lantzen, baizik eta etika edo hiritartasuna bezalako klaseetan bakarrik. - Oinarritzko zenbait konpetentzia (irakurketa, ulermena, matematikak...) ez dira ondo barneratzen eta horrek arazoak dakartza etorkizunean. Aukerak

DINAMIKA PARTE HARTZAILEA I - AKTA

- Interesgarria litzateke auzo/herri bakoitzean mahai bat egotea ikastetxeetako eta tokiko erakunde eta eragileen ordezkariekin kezka konpartitzeko eta konponbideak batera bilatzeko.
- Gai batzuetan ongi legoke ikasleek gaia liburuetatik harago lantzea eta gai hori jorratzen duten tokiko eragileekin lantzea (memoria historiakoa, adibidez).
- Tokiak tokiko eskolaz kanpoko ekintzak antolatzea, bertoko kultura, ohiturak zein historia ezagutzeko asmoz.
- Gurasoen, ikasleen eta irakasleen parte hartze zuzena ikastetxeen egunerokotasunean sustatzea.
- Baina gai honek planteatzen duen erronkarik handiena komunitatearen partaidetza kultura da. Hezkuntza sistemaren eta komunitatearen arteko zubi edo sare horiek eraikitzeak komunitate parte hartzaileak behar beharrezkoak baitira.

KOMUNITATEA OINARRI.

- Inguruaren aktibazioa beharrezkoa da beste guztia posible egiteko. Estrategia orokor bat beharrezkoa da.

EGOERA LINGUISTIKOAREN ARABERAKO SAREAK

- EAE, Nafarroa, Iparraldean ezaugarri sozioekonomiko berdinak dituzten herrien artean loturak, harremanak eraiki behar dira.
- Horrekin batera, eremu soziolinguistikora egokitutako hezkuntza sistema behar du izan. Hots, nahiz eta nazionala oinarri izan, tokian tokiko errealitate linguistikoari egokitutakoa behar du izan hezkuntza sistema.
- Modu berean, herriko hizkuntza aniztasuna kudeatzeko prest dagoen hezkuntza sistema eraiki behar dugu. Sistema horrek euskara oinarri izan behar du, eta babes aktiborako esparrua utzi behar dio, baina beti hizkuntzen arteko elkarbizitza sustatzen. Babes aktiboa esatean, euskara hizkuntza gutxiagotua izanik, zenbaitetan bere aldeko defentsa egitea eskatuko duela esan nahi du (manifestazioak etab.).
- Beti ere segregazioan oinarria hartzen duen hezkuntza sistema ez dela, eta hizkuntza zein kultura aniztasuna barne hartzen dituela zainduz.

KULTURARTEKOTASUNA

- Hezkuntza sistema berdinzalea.
- Gure hizkuntza bandera.
- Hizkuntza eta kultura ezberdinen arteko esparru komunak sortu behar dira, lan hori aldebikoa izan behar du. Eta bertan tokiko entitateen eragitea egon behar du.


SISTEMA PUBLIKO ETA KONTZERTATUA

- Herriko hezkuntza zentroak berdinak izan behar dute. Ereduak ez, publiko/kontzertatuak dikotomiarik ez. Hezkuntza sistema berdina eskaini behar dute. Izan ere, uste da, titulartasun ezberdinetako zentroak inguru berean egoteak komunitatearen kohesioa zailtzen duela.

- Norabide aldaketa eman hezkuntzan: ikuspegi kritikoa, arazoei irtenbidea emateko konpetentziak, ekitatea, aniztasuna... zeharlerrokotasunez landu, materia guztietan.
 - Begirada kritikoa txikitatiko landu.
 - Eztabaidatzen irakatsi/ikasi.
 - Hausnarketaren bidez ikasi: gizartean gertatzen diren gauzekin osatu ikasketa prozesuak.
- Metodologia berritzaileak praktikan jarri:
 - Esperientzia interesgarriak mahaigaineratu.
 - Horrelakoak praktikara eramaten ari diren eragile kritikoei ez zaie gaur egun zilegitasunik aitortzen.
- Irakasleen kritikotasuna landu, eta irakasle lanbideari duen garrantzia aitortu gizarte modura.
- Ikasleen arteko botere harremanak landu.
- Emozioak landu: frustrazioen kudeaketarako oinarritzkoa.
- Indibidualismotik kolektibora: komunitate osoaren inplikazioa sustatu: hezkuntza ez da eskolan hasi eta bukatzen, espazio ez-formaletan ere akonpainamendua beharrezkoa da.
 - Gurasoen eta ikasleen parte hartzeko espazioak sortu.
 - Gurasoentzat pautak landu eta eskuragarri egin, gaien lanketa etxean ere egiteko.
 - Eskolak komunitateari zabaldu.
- Hezkuntzan ardurak eta erabakimena duten instituzioak hausnarketaren parte egin, eta neurriak hartu ditzaten sustatu.
- Erlijioaz hitz egin (kristau eskola sareko ikastetxeetan), baina laikotasuna ardatz izanik.
- Letrei eta arte eszenikoei garrantzia gehiago eman, kritikotasuna lantzeko oinarritzkoak direlako.
- Espezializazio goiztiarra ekidin: formazio duala (zientziak eta letrak) ahalik eta gehien luzatu. Hori posible egiteko aukerak aztertu eta praktikan jarri (adibidez, Iparraldeko baxoan ematen duten aukera materiak hautatzeko).
- Oinarritzko konpetentziak ondo barneratzen direla bermatu, horretarako ikasle bakoitzaren denbora eta beharretara moldatuta.
- Ikasketa eredu tradizionala eta eztabaida uztartu: ikuspegi kritikoa garatzeko ikuspegi ortodoxoa zein den jakitea garrantzitsua da.
- Hezkuntzan gaur egun nagusi den ikuspegi androzentrista desmuntatu.
- Euskal Herria estaturik gabeko nazioa denaren ideia azpimarratu, herri eta hizkuntza gutxitua garenarena, kritikotasuna lantzeko

DINAMIKA PARTE HARTZAILEA I - AKTA

- Hala ere, aipatzen da, Iparraldean eta Nafarroako inguru batzuetan ezin dela euskaraz ikasi hezkuntza sistema publikoan.
- Bestetik, denok gure seme-alaben hezkuntza eredua erabakitzeko aukera izan beharko genukeela aipatzen da. Hala ere, denok ez dugula aukera hori ere onartzen da. Hortaz, hezkuntza sistema publikoa lehenestearen ideiarekin ados agertzen diren arren, epe luzerako helburu gisa ikusten dute hezkuntza sistema bakartzat hartzea.
- Horren harira ere hurrengo galdera egin da: non apurtu da katea komunitateak ez izateko merezi duen hezkuntza? Honi erantzunez, aipatzen da, horretarako hezkuntza sistema publiko duin baten aldeko apustua egin behar dela. Baita ez dela nahikoa inbertitu hezkuntza sistema publikoan ere. Eta baliabide horiek komunitateak zergen bidez jarri behar dituela adierazi da. Horren harira, hezkuntza sistema publikoan irakasleen euskara gaitasuna beti ez dela nahikoa izaten aipatu da.



DINAMIKA PARTE HARTZAILEA II - AKTA

GOBERNANTZA-EREDUA: DEMOKRATIZAZIOA ETA PARTE HARTZEA			
Talde bakoitzean hitz egin eta landutakoa.			
ALTUBE		ARGA	
- Espazioak eskaini behar dira - Herritarren borondatea, konpromisoa ezinbestekoa da - Jendea erakartzeko zailtasunak izaten ditugu - Elkar ezagutzea ezinbestekoa da, ondoren lanketa bateratu bat egiteko - Partaidetza ikuspegitik mekanismo berriak landu behar dira - Sistema goitik behera aldatu beharra dago - Erabakitze ahalmena herritarrena ere badela demostratu behar da. - Gertutasuna eskaini, honek interesa pizten du - Irakasle aktiboak behar dira, inplikatuak. - Irakaskuntzari lotutako ikasketak falta dira. Disziplinan ezagutza vs. Irakaskuntzan ezagutza - Ikastetxeetan zuzendaritzaren lidergoaz hitz egiten da, baina irakasleak izan behar dute lidergoa. Erabaki gaitasuna eman behar zaie. - Hitzarmen berriak zein toki eskaintzen zaie irakasleei ? - Nola kudeatu irakasleen autonomia ? Iniziatiba eta motibazioa ezinbestekoa dira, gaitasunak, etengabeko formakuntza, proaktibotasuna... Berdin du gaizki edo ondo egin, elementu hauek ez badaude ez dela ezer lortzen - Ikasleari hitza eman behar zaio, hainbat alor zehatzetan batik bat. Ez da galdetzen. Gaur egun badira hainbat ekimen: jolas tokiak, jantokiak... - Komunitateaz hitz egitean ikasleak ez dira aipatzen, ahaztu egiten ditugu - Curriculuma nork lantzen du? Hezkuntza proiektua komunitatearen parte hartzea ezinbestekoa da		- El modelo institucional actual ha fallado. Es necesario un modelo donde la base de la sociedad y las organizaciones sociales puedan participar y puedan tomar decisiones. El espíritu democrático se forja en lo más pequeño. - El modelo educativo debe construirse de manera colectiva, para escuchar y tomar en cuenta. - El cambio social necesario para construir un nuevo modelo de gobernanza debe comenzar en las aulas. A participar se enseña participando. En las aulas se puede enseñar a participar de forma social. Las decisiones que se toman en las aulas tienen repercusión, y ofrecen herramientas para vivir en sociedad. - La idea de la co-responsabilidad. Las personas jóvenes también pueden ser parte de las decisiones, son las que mejor conocen las necesidades. Hay que ofrecerles herramientas y espacios accesibles para que lo puedan hacer. - Perspectiva local: es el espacio donde mejor se pueden identificar las necesidades de las personas. - Responsabilidad de las instituciones: deben hacer frente a un cambio de paradigma en la participación y crear en la cultura participativa. Tienen responsabilidad y medios. Los espacios de debate deben ser reales, atractivos, para generar conciencia colectiva y participar. - Responsabilidad de la sociedad y los agentes sociales: siempre hay que pedir más, ser críticos, pero también propositivos. - Reglas del juego claras: ante cualquier proceso de toma de decisiones hay que dejar claro hasta dónde se podrá llegar, hasta dónde se tomará en cuenta la opinión recogida...	
ATURRI		UROLA	
- Nazio ikuspegia duten herri hezkuntza mahaiak sortu beharko lirateke. Beharbada mahai nazional bat batetik, eta tokian tokiko herri mahaiak bestetik. Bertan guraso, ikasle, irakasle, herri eragile... komunitate osoa hartuko luke parte. Baita udala ere. Udalaren ardura hezkuntza sailarekin harreman zuzena izatea eta zubi lanak egitea litzateke. - Bestetik, zuzendaritza ereduaren erreibisatu beharra dago. Inork ez du zuzendaritzan egon nahi; beharbada zuzendaritza konpartitu baten aldeko apustua egin beharko litzateke. - Gazteen parte hartzean laguntzeko espazio fisikoez gain espazio digitalak sortzea aproposa izan liteke.		- Demokrazia, erabakitze gaitasuna txikitik, gertuenetik abiatu behar da. Tokiko entitateen eta "herri hezitzailearen" ideiatik abiatu behar gara. - Dimentsio lokala: Parte hartzeko toki errazena da, eragileak identifikatzeko toki errazena da, logikagatik eta egokitasunagatik beharrezkoa da tokiko baldintzetara egokituko den proposamena - Gobernantza praktikan jartzeko eremu egokiena gertukoena da: Herria. Nazio markoan oinarri batzuk adostu eta eremu bakoitzak beretzako eredu egokiena zein den hobeto jakingo du. - Tokian tokiko eragile eta taldeen elkarlana - Beti dagoeneko existitzen den zerbaiten aldaketa proposatzeko aukera ematen da, baina ez hutsetik sortzeko.	

DINAMIKA PARTE HARTZAILEA II - AKTA

- Hala ere gazteen ahotsa beharrezkoa dela transmitituko balute gehiagok parte hartuko luketela uste da. - Azkenik, ikasleen arteko antolakuntza ikastetxe bakoitzean egon beharko lukeela ere uste da.	- Gure burua zalantzan jarri behar dugu eta botere harremanak kudeatzen ikasi, hitz egiteko kultura sustatu - Herritarren interakzioa beharrezkoa da eta horretarako hezkuntza eta herritarrenganako erantzunen feedback-a behar da. - Gazteak kuota moduan lantzen dira, gonbidatu egiten gaituzte. Gazteok gidaritzan egon behar gara, paper aktiboa izan behar dugu, gure iritzitik haratago; entzunak izatera gonbidatzen gaituzte: gu ere bagara nor besteak entzuteko. - Gazteok gidaritzan egotea posible da ikastetxeetan badaudelako ikasle taldeak; erronka da horri toki zentral bat ematea, ez soilik haien ikuspegia txertatzea - Praktikan ikastetxeen funtzionamendutik hasi daiteke aldaketa: EAEko Eskola Kontseiluan, esaterako, ez dago ikasle elkarten ordezkapenik; hori azertu behar da - Saiakera izan behar da ahalik eta eragile gehienek parte hartzea: heziketa prozesua hezkuntza komunitatetik haratago doa. Eragileek eta auzo/herriek hezkuntza prozesuan duten papera garrantzitsua da, eguneroko egituretatik hasita. Lanketa asko egin daitezke, adibidez, elikaduran, jangelarako tokian tokiko ekoizleekin lan egiten.
--	---

aprender participando
 gazte dinamizatzaile
 ikasleen partehartzea
 subjektu aktiboen beharra
 ardura sentitu
 gazteen ahotsa
 ausardia
 tokikotasuna
 jarrera kritikoa
 behetik gorako prozesuak
 tokiko egoerara egokitua
 udalen erabakimena
 erakartzeko gaitasuna

elkarguneak
 interesa

poder popular

DINAMIKA PARTE HARTZAILEA III - AKTA

ETORKIZUNERA BEGIRA: ZER ETA NOLA. EUSKO IKASKUNTZA ETA GAZTEAK

Partaide bakoitzak egindako ekarpenak.

Gazteen arteko espazioak sortzeaz gain, benetan eragiteko gaitasuna duten organoekin harreman zuzena bideratzea (gure artean hitz egindakoa espazio eraginkorretagoetara zuzentzeko).

Gazte mugimenduaren ordezkaritza zabalagoak egon behar du horrelako prozesuetan, bakoitzaren borroka sozialetik hezkuntza eraiki behar dugulako

Gaur bezalako espazioak oso abersgarriak dira gazteok saretzeko. Horrelako espazioak sortzen jarraitzea garrantzitsua iruditzen zait. Honetaz gain, plataforma digital bat sortu/ireki daiteke iritzia elkarbanatzeko.

Borroka partekatutak topatuz, epe laburreko, ertaineko zein luzeko helburuak finkatuz eta haiek lortzen direla demostratuz

Habilitar espacios de participación más puntuales, a pie de calle y en el que cualquier persona joven pueda participar. Consultas periódicas, mayor presencia en redes sociales, participación telemática. Actividades culturales deliberativas.

Gazteengandik gertuago dauden espazioak bilatzea garrantzitsua da. Gaur egin duguna bezalako foroak, agian, urrun geratzen dira oraindik antolatu ez diren, edo parte hartzeko kultura hain sustraitua ez dutenentzat.

Amankomuneko erronkak identifikatu eta estrategia komuna adostea.

Nazio ikuspegiaz hausnarketa konpartituak emateko gune egokia da El, espazio hauek gehiagotan irekitzea positiboa litzateke (ez dinamika jarraituak garatzeko, eragile bakoitzak bere bidea egiten du eta badira beste elkargune batzuk hemendik kanpo ere)

Gazte-foro iraunkor bat sortzea edota horrelako saiok errepikatzea, eta gutxieneko adostasun batzuetara heltzea.

Lehenik gazteen artean trukaketak sortu haien artean elkar ezagutzeko Euskal Herri osotik